

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

29
positibo berri
3170
positibo guztira*

1.626
hildako EAEn
5
UCIn

NAFARROAN

78
positibo berri
6.898
positibo guztira

*Hernanin 79 Astigarragan 24

Dinamizatzaileen gomendioak jaso dituzte herritar eta ostalariek, neurri egokiak hartzeko

COVID-19ak eragindako pandemia eteteko hartu behar diren neurri higieniko-sanitarioak modu egokian betetzeko, sentsibilizazio kanpainaren berri eman du dinamizatzaile talde batek.

HERNANI KORONABIRUSA

Indarrean dagoen osasun araudiaren inguruko azalpenak emateko dinamizatzaile talde batek Hernani erdigunea bisitatu zuen joan den ostiralean. Sentsibilizazio kanpainaren helburu nagusia da «herritarrak eta ostalaritza sektorea sentsibilizatzea, COVID-19ak eragindako pandemia eteteko hartu behar ditugun neurri higieniko-sanitarioak modu egokian betetzeko». Gainera, herriarren artean maskarillak banatu dituzte, birusaren aurrean prebentzio neurriak hartu ahal izateko eta jendea gaiaren inguruan sentsibilizatzeko asmoarekin.

Kanpainak Eusko Jaurlearitza-turismo eta Ostalaritza zuzendaritzak eta Euskadiko hiru lurraldeetako ostalaritza elkarrekin urtero sinatutako elkarlanerako hitzarmena du abiapuntu eta Gipuzkoan, *Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteak* gidatuko du. Ostalaritza sektorerako bideratutako kanpaina bat bada ere, herritarrek ere presentzia handia dute proiektu honetan. Izan ere, COVID-19ak eragindako pandemia eteteko neurri egokiak sustatzeko helburuarekin, herritar eta ostalariek bisitatu dituzte kanpaina honetako arduradunak.

Informazio ugari, herritar eta ostalari guztientzat

Bi orduz aritu ziren dinamizatzaileak lanean erdigunean, gauko 23:00etatik 01:00etara. Eremu horretan jarri zuten fokua «jende pilaketa gehien jasotzen duen udalerriko gunea delako».

Denbora tarte horretan herritarrei, ostalariei eta hauen bezeroei informazioa eskaintzen

aritu ziren, indarrean dagoen osasun araudia behar bezala betetzeko.

Kanpainako dinamizatzaileek hamaika gomendio eman zituzten eta informazioa eskaini zuten herrian zehar. Hala ere, batez ere zenbait puntu landu zituzten herrian egin zuten sentsibilizazio kanpainaren bisitan: maskarillaren erabilera ostalaritza eremuko kontsumo garaian eta baita eremutik kanpoan ere, distantzia soziala bermatzeko irizpideak eta eskuetako garbitasuna. Taldeei ere egin zieten erreferentzia eta eman zizkieten aholkuak, hamarrek muga ez gainditzeko eta hamarrek bete behar diren neurriak azaldu zituzten.

«Bisitaren helburua herritarrak eta ostalaritza sektorea sentsibilizatzea da»

Batez ere, gazteei zuzenduta

Joan den hilabetean abian jarri zen sentsibilizazio kanpaina honen helburua da adin tarte guztietara iristea. Hala ere, gazteengana iristeko «ahalegin berezia» egin dute. Izan ere, diote, momentu honetan COVID-19aren zabalkundea gelditzeko kolektibo hori dela «sentsibilizazio eta pedagogia lan gehien» eskatzen duena.

Sentsibilizazio kanpainaren bitartez, hiru lurraldeetako ostalaritza elkarteek bere hondar alea jarri nahi dute pandemia indargabetzeko. Azken hilabeteak gogorrik ari dira izaten herritar guztientzat, eta hori dela



Bezeroak tabernako terrazan, pandemia garaian.

eta hainbat talde eta eragileek zenbait proiektu jarri dituzte martxan egoera ahalik eta azkarren hobetzeko.

Horregatik, pandemia eteteko hartu behar diren neurri higieniko eta sanitarioak modu egokian betetzeko Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako ostalarien taldeak lanean aritu dira, baita ere. Gainera, kanpainarekin ere, ostalaritza «eremu segurua» dela aldarrikatu nahi dute.

Konfinamendua izan den hilabeteetan eta deseskalada fasean ere, Euskadiko ostalaritza sektoreko ordezkariak eta Eusko Jaurlearitza arduradunen arteko hartu-emana «etengabea eta emankorra» izan da. Gipuzkoako Ostalaritza elkartearen esanez, «eskuartearen daukagun kanpaina elkarlanaren adibide bat baino ez da, Euskadiko ostalaritza guneak zabaltzeko erabakia bezala, tokian tokiko berragertzeen ondorioz salbuespen eta neurri bereziak hartu behar izan badira ere».

Horregatik, Koronabirusaren aurrean sortu den sentsibiliza-

zio kanpainaren arduradunek ostalaritza sektoretik instituzioetako ordezkariak pandemiaren aurka egiten ari diren lana azpimarratu nahi izan dute, eta egiten ari diren lana txalotu.

Sentsibilizazio kanpainarekin jarraituko dute, lurralde osoan Hernanin ez ezik, Gipuzkoako beste herrietan ere egingo dute bisita dinamizatzaileek. Izan ere, Koronabirusa duela hilabete batzuk iritxi bazen ere, aste batzuk bakarrik igaro dira prebentzio neurriak indartu zituztenetik. Izan ere, maskarillaren erabilera ez zen derrigorrezkoa konfinamenduaren ondoren, baina badira zenbait aste hau jartzeko araua ezarri zutenetik.

Horregatik, herritarrak eta ostalaritza sektorea sentsibilizatzeko asmoarekin, kanpainak Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeak bisitatu ditu. Uztailearen 24an jarri zuten abian, eta ordutik irailaren 13ra bitartean Gipuzkoako 40 lokalizazio inguru bisitatu dituzte

dinamizatzaile taldeek.

Jakinarazi dute, «Errenteriko eta Mutrikuko Magdalenekin hasi, Donostiako Jazzaldiarekin jarraitu, eta bata bestearen atzetik etorriko dira Pasai Donibane San Pantaleonak, Ordiziako Koadrila Eguna, Elgoibarko San Bartolomeak, edo San Roke bezpera Deban».

Gainera, beste zenbait herritan ere izango dira, hatu behar diren neurrien inguruan informazioa zabaltzen eta herriarren gomendioak ematen. Horrela, gaueko aisialdia dela eta, Irun, Eibar eta Zarautz ere bisitatu dituzte. Eguerdiko tarreak kubritzean, Donostiako Alde Zaharrean eta Grosen, edo Tolosako larunbatetako merkatuan ere izango dira.

Ezarritako osasun eta higiene neurri guzti hauekin eta dinamizatzaileek sentsibilizazio kanpainarekin emandako gomendio guztiekin COVID-19ak utzitako pandemia ahalik eta azkarren gelditzea espero dute *Gipuzkoako Ostalaritza Elkarte*ko kideek. **K**

LANDAK Villas du lac Irailaren 12tik 19ra 7 gau, 4 lagunentzat ... 268 € , 6 lagunentzat ... 295 € , 8 lagunentzat ... 348 €	<p>www.bidaibila.eus Taldeen prezio bereziak</p> <p>HERNANI BIDAIAK Urbietan 6 943 33 00 49 634 61 52 74</p> <p>JARRAITU: </p>	
MENORCA Irailaren 1etik 8ra Hegaldia, trasladauak, 4*-ko hotela, pentsio erdian.		574 €
FUERTEVENTURA Irailaren 12tik 19ra Hegaldia, trasladauak, 4*-ko hotela, pentsio erdian.		538 €
LANZAROTE Abuztuaren 15etik 22ra Hegaldia, trasladauak, 4*-ko hotela, pentsio erdian.		572 €
TENERIFE Abuztuaren 15etik 22ra Hegaldia, trasladauak, 4*-ko hotela, pentsio erdian.		545 €
MALLORCA Abuztuaren 15etik 22ra Hegaldia, trasladauak, 4*-ko hotela, pentsio erdian.		536 €
PUNTA CANA Abenduak 5, Madriletik irteera Hegaldia + 4*-ko hotela TI, dena barne. Gasturik gabe, 15 egun lehenago arte	1016 €	

Aholkularitza eta tramitazio zerbitzua

Gudarien plaza, 13
Telfnoa: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
gse@gseasesores.net

BAUTISTA BIURRARENA ETXEGOIEN

Atzieta 30 - Hernani
943 33 24 40

GAUR Goizaldean giroak goibel jarraituko du eta euri txikia egin dezake. Eguerdian atertzera egingo du eta arratsaldean hodeiak gutxituz joango dira eta argitzera egingo du. **Min.16° / Max.22°**

BIHAR Temperatura nabarmen igoko da. Eguna lainogune batzuekin hasiko da, baina goiza aurrera joan ahala garbitzera egingo du. Eguerditik aurrera giro eguzkitsua izango da. **Min.14° / Max.26°**

DOBERA EUSKARA ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarra Udala

Dobera Udala

Goizuetako Udala

Aranoko Udala

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarra) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarra) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarra) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gauez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Beñi Agirreren erakusketa Biterin gaurtik, euskal historiaren inguruan

‘Euskal nafarrak naziotik estatura’ erakusketa Biterin egongo da egunero gaurtik hasita, eta hilaren 27an bukatuko da.



Argazkian Beñi Agirre, bere erakusketa batean azalpenak ematen.

HERNANI ERAKUSKETA

Gaurtik hasita, abuztuko hila-betean zehar erakusketa «bitxi bezain interesgarria» egongo da ikusgai Biteri Kultur Etxean. Egunero ikusteko aukera egongo da, goizeko 09:30etatik 13:30etara bitartean.

Mapa didaktiko handi batzuk eta argibideak ematen duten bederlatzi panelek osatzen

dute erakusketa. Gainera, Agirreren esanetan, erakusketaren helburua da «Euskal Herriko historiaren gako nagusiak azaltzea: lurraldetasuna, euskararen hedapena, funtsezko datuak, pertsonaiak, gertaerak eta abar».

Erakusketa 09:30etatik aurrera egongo da ikusgai. Baina

horrez gain, goizeko 10:30etan eta 12:00etan Nabarraldeko ki-deek ikustaldi gidatua egingo dute aretoan bertan. Izan ere, honen bitartez Euskal nafar herraren bilakaera historikoaren ikuspegi «orokorra» lortuko da, azalpen eta galdera librean bidez. «Bisitatu, interesgarria izango da eta!», luzatu dute. **K**

Kultur Etxeari agurra egingo diote

Orain arteko Kultur Etxea agurtzeko eta Erriberari ongietorria emateko, herritarrei proposamena zabaldu die Udalak.

ASTIGARRAGA KULTUR ETXEA

Erribera kultur gunea irailaren 12an inauguratuko da. Horregatik, orain arteko Kultur Etxeari «merezki duen agurra eta Erriberari merezi duen ongietorria» emateko, proposamen bat luzatu du Udalak: postal batean bi

gogoeta idatzi, bi marrazki egin edo bi sententzia islatzea. Horretarako, «Agur Kultur Etxea» esaldiari erantzun beharko zaio batean, eta «Kaixo Erribera» esaldiarekin bestean.

Gainera, jasotzen diren postal guztiekin erakusketa bat egingo da Erriberan, irailaren

12tik aurrera ikusgai egongo dena.

Igande honetan bukatuko da postalak uzteko epea

Etxe bakoitzera postal bana bidaliko da. Hala ere, herritar guztiek beraien postala izateko, eskuragarri jarriko dira Udaltxean, Kiroldegian, Kultur Etxean eta herriko zenbait saltokitan. Bestalde, postalak utzi daitezke aipatutako lekuetan, edo kaleko postontzietan. **K**

Konponketa lanak hasiko dira aste honetan, orduko ur asko galtzen delako

Ur-ihesak non dauden eta auzo bakoitzean zenbat ur galtzen den jakin da ur mozketekin. Orduko 8.300 litro ur galtzen dira, batez beste.

GOIZUETA UR-IHESAK

Joan den uztailean ur mozketak egin ziren Goizuetan, zenbat ur kopuru galtzen zen jakiteko. Auzo guztietan egin zituzten lanak, eta uztailean 5etik 24ra bitartean ura moztu zen auzoka. Horregatik, atzo jakin zen zenbat ur galtzen den eremu bakoitzean.

Udalak dio, uraren gaiak «arazo ugari» eman dituela azken urteetan herrian. Izan ere, ur depositoa betetzen zen, baina «behar baino lehenago» hustutzen zen. Horregatik, azken

urtean zenbait fuga antzeman dituzte eta hauek konpondutakoan, depositua nola betetzen den ikusi dute. Hala ere, arazoak jarraitu egin du eta horregatik, uneoro zenbateko kontsumoa dagoen jakiteko, kontadorea jarri da deposituan. Udalak 2.500 euroko inbertsioa egin du kontpontze lan horretarako.

Ur-ihesak guztiekin egunean 199.000 litro ur galtzen dira la hiru asteetan ura moztu zen herrian, auzo bakoitzean zenbat ur kontsumitzen den jakiteko eta gero, gauez ura moztuta-



Ur fugak detektatu dira, Goizuetan,

koan, zenbat litro egiten duen ihes konprobatzeko. Neurketekin ikusi da egunean batez-beste 84.000 litro ur kontsumitzen direla Goizuetan. Gauez, aldiz, ura moztuta ere, orduko 8.300 litro ur gatzaten dela ikusi da. Horrela, egindako lanarekin, egunean 199.000 litro ur galtzen direla ondorioztatu dute. **K**

Udako zinemaldia bihartik, Atsegindegin

Bosgarren urtez jarraian, Potemkin taldeak Udako Zinemaldia antolatu du. Bihar hasiko da, 'Hrútar' pelikularekin.

HERNANI UDAKO ZINEMALDIA

Potemkin taldeak antolatu du Vgarren Udako Zinemaldia, aurreten ere. Emanaldi guztiak Atsegindegin izango dira eta gaueko 22:00etan hasiko dira. Aurtengo edizioak egun bat gehiago iraungo du eta biharko pelikularekin hasita, guztira hiru film proiektatuko dira.

Islandia, Japon eta Finlandiako ekoizpenak dira. Hiru

proiektzioak jatorrizko bertsiotan ikusi ahal izango dira, baina gaztelarazko azpitituluekin lagunduta.

Islandiako pelikula emango dio hasiera zinemaldiari

Prestatutako egutegiaren arabera, bihar izango da aurreneko proiektzioa. *Hrútar* (ahariak) pelikula proiektatuko dute Atsegindegin. 2015ean egindako islandiar ekoizpena da eta bertan, Islandiako mendialdeko bizimoduaren erretratua egiten da. Gainera, errekonozimendu ugari jaso dituen filma da bihar aurkeztuko dena. Besteen artean, Europar Zinearen Sarietan Film Onenaren Saria izendatu zuten, 2015 urtean. **K**

Atzoko Samarreneko sutea, kontrolpean

GOIZUETA SUTEA

Goizuetako Suhiltzaileek jakinarazi dute atzo Samarrenen izandako sutea kontrolpean dutela. Adierazi dute "normala" dela oraindik kea ateratzen ikustea eta horregatik, lasaitasuna eskatu eta horren abisua emateko 112ra ez deitzeko eskatu diete herritar guztiei.

Zabalik, boleibolea izena emateko epea

HERNANI BOLEIBOLA

Hernani Kirol Elkarteke Boleibol atala datorren denboraldiari begira dago jada eta izenematea zabalik. Aurtengo denboraldian izena emateko *WhatsApp* bitartez idatzi edo telefono mugikorrera deitu behar da, 656731929 telefono zenbakira.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.


KEPA URREAGA URKIZU

Herenegun hil zen, 74 urte zituela

Orain arte bezala, gero ere elkartuko gaituk.

1967KO KINTOAK

Hernanin, 2020ko abuztuaren 4an



ESKERTZA


María Ángeles Azpiazu Mora

(Mikel Anteloren alarguna)

- Goian bego -

Anai-arrebak: Alicia eta Carlos Sanz (†), Izaskun eta Cruz Etxeandia, Lupe eta Andoni Unanue (†), Charo (†) eta Jorge Rude (†); bere zaintzailea: Paula Mendoza; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zineten guztiei ere. **ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK**

Hernanin, 2020ko abuztuaren 4an



IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**